



Dagonila'ren 15'n lurbira gustiko Umeen jaunartze bat. Datofen Dagonila-8'n beteten dira 25 urte X'n Pio'ren aginduz *Quam Singulari* erabagia umeen jaunartzeatzaz emon zala. Gustiok dakigu agindu onen bidez erabagi zala umeak lenengoz Yauna arteko eginbeafa ad'men-argira, saspri urte ingurura eltzen ziranean ebela. Len oituraz Yaunartze ori berandu-txoago egiten zan, umeen azieran ainbeste eragipen daben Yaunartzea geyegi atzeratuaz. Esan beafik be ez da beraz, agindu ori gafantzi andi-andikoa izan zala. Eta Eleizan ainbeste on egin daben agindu ofen gomutaz, Sakramentuetako Eleiz-Batzordeak asmo begiko bat izan dau. Datofen Dagonila (agustuaren) 15'n lurbira gustiko umeen Yaunartze orokor bat egitea. Yesus'ek berariz umeak maite zituan, Bere kutunak umeak izan ziran, eta Eleizak be kutunenak ditu. Beraz gustiok alegindu bear gara, egun eder au poztasunik audienaz ospatzen umeak ofetarako arduraz gertautu.

«Granateri» gudarrietatik 5.000 Aita Santuaren afean. Efoa'n egin daben batzar ondoren, «granateri» gudarriak Aita Santuaren jaupa entzun dabe. 5.000 izan dira bildu diranak. Aita Santuak itzaldi bat egiten dautse esanaz, gudarrien artean galentzen diranak, diran ezkeru, euren eginbeafak betetan be lenenak izan bear dabela. Baña batez bere kistar lez galendu bear dira. Eleizaren seme zintzo lez. Zerutar Efegearen menpeko lez, arek ba ez euskun gure odola ixuri eragin. Berak gure maitasunez ixuri baño. Galendu baño batez bere zifneste zintsoan...

**New-York'eko Kardenala ta Mexiko'ko lege txafak.**

New-York'eko Hayes Kardenal agurgafiak, bere menpeko eleiztar gustiel Gotzain-idazki bat zuzendu dautse, katolikotafak Mexiko'n igaro daben yasarpn gogofatzaz. Yasarpn ori, diño, anker, indarkerizkoa eta deabrukoya dala, eta alegin gustiak egin bear dirala gaiztakeri ori amaitzeko. Giza-eskubide gustien aurka maltzurkeriz eta guzufe zuentzen da, eta gizadi ta zifneskera gustien aurka doan ezkeru, ıla bete onetan era gustiera katolikotafak asafea agertu bear da be, eta otoi egin jasarpn ondagafi au zearo kendu arte.

Egunokaz Kafes'tafak baztertuta gelditu dira, baño oin agintzen dagozanak be dana beafekoak dira-ta, itxaropen andirik ezin euki lei...

**Jocistak Jinebra'ko Batzafean.**

Langile-arazoak atonduteko, Jine-

bra'ko Latefi arteko batzafak izan dituan eztabaidetan, latefi gustietako ordelariak bertan zirala, J. O. C. edo Gastedi Langile Katolikoak, gasteen lanik ezatzaz itz egiteko baipena lortu eben. Geyenak pantzetar, beljekar, olandar eta txekoslobakafak izan ziran. Jinebra'ra aldatu aurretik irufen bat egin eben, euren deya entzuna izan zeitean eskatzeko. Gaste asartuok, maipurkoei ingi-agiriak emoten eutsez bitartean, itzaldi sutuak egin zituezan. Agerketa au egiteko batu dituen izenak 84.770, eurotatik pantzetafak 21.000, Olandafak 17.000, Beljekarafak 16.000, Txekoslobakafak 19.000. Kanadafak 5.000 eta enparauak, Austria, Suiza, España ta Luxemburgo-tafak. Latefien ordelariok bata besteen ondoren, sutu ta biziro lanbako gasteen egonera lafia azaldu eben, gaitz izugafi ori zuzentzeko bideak artzeko ezkatuaz. Amabost urtetik ogetabosterarteko lanik ez daben gasteak ia saspri miloira eltzen dira. Naiko da gaitz au izugafia dala ezagutzeko. Zegaz bizi ezpa-dabe, bizibidea zelan artu? Lanik ez eta zer yanik ez daben gasteen galbideak nok ez dakus? Jinebra'ko batzarkideen artean zauzkada andia egin dabe gaste asartu onein itzaldiaik.

**Antzerki bakan efa bikafia Paris'ko Notre Dame afean.**

1452'n urtean lenengo aldiz antzeztu zan «Vray Mistere de la Passion», Arnould eta Simon anayen antzerkia. 34.575 itz-neurtu ditu. Ba, Antzerki bikain au, egunokaz Paris'ko Gotzain-Eleizaren afean antzeztu da. Lau egunean antzeztu da osorik. Edesti Deuneko yasokun garayenak ikusleen aurretik igaro dira. Antzeztokiak 18 metro sakon eta 38 zabal izan ditu, 13.000 yarleku beterik egon dira. 100 antzezlari ta 600 abeslari 70 «altavoz» ta 80 argi-yaurtikid edo proyectorek antzerki atalak zoragafiro argitu ditu. Egun oneitan eleiz aufe ospetsua antzeztoki biurtuta ikusi dabe, gustiak bakafik edefean egiñaz. Benetan begiko ta pozgafi izan da katolikotafontzat Paris'tar katolikoak egin daben yai eder au.

**Katoliko-izpar landola bat Txina'n.**

Frederic Diets abak Txina katoliko-izparak biltzeko landola bat irasi dad. «Lumen» da bere izan. Bere asmoa, Txina'ko erki gustietan, ordelari izpar-biltzaleak ipintea da ta orain arte 120 bildu ditu. Landola onek, txineraz, ingalanderaz eta pantzeraz izparafak emongo ditu. Zabalkunde-lan edefa auxe benetan.

M.'tar G.



**IZPARAK BIZKAYA Ermua.**

**Mañari.**

**Gorpuzti.**

Gorpuzti-eguna, emen be jai andijari yagokenez ederto baten ospatu zan. Goxian Jaunartze asko; ta amf-etako meza-ostian, ibildeuna, lenagoko urtietan letxe aindikiro egin zan. ¡Ederto! Geure aurretikuak be, Gorpuzti-Eguna andikiro ospatuen, aufenengoak zirala esango neuke. Ona emen esakun bat. «Gorpuzti, egun andi, zeru-lufian jai-andi».

**Bederatziufena.**

Josu'ren Bijotz Deun-deuna'ren bederatziufena, lengo barikuz asi zan; eta iluntzietan egiten da.

**Jon deuna.**

Santu andi onen eguna, emen jai ospatu zan, Aldegoyenian batez-be. Bere besotxonuan, beste urtietan lez, meza abestu bat emon zan, eta eleza nausijan igandetako elizkixunak egin ziran. Eta... eta... jai ofetan egin zan efoimerijatzaz, zer esan geinke? Gura ta be gauza onik ez... Efiko plazan egin zan su andija, geure asabean ekandu on-onak efetako ixotu ebela esan biar dogu ta. Bai, euzko-otura garbi edefak efetako ixotu eben...! Eta negargafi dana, San Juan garbi-garbijaren «ondran» suaren onduan, Miren-Alabaen bazkunakoak eta baña Emakume Abertzale-Batzakuak be «baltzeo» zikin iguingafijan dantzatu zirala esan biar... ¡Olakorik! Ekandu onak jaboteko diran bazkunakoak olan asi ezkeru, erparau emakumiak zer egingo ezta-be ba...! Ezta txantxetako gauzia, ezta bafe egitekoa be.

**Agurtu.**

Igandez ta astelenez atsegiñez agurtu genduzan emen, «Afitokieta» idazleme argija ta bere seme Endika mendigoxale efimia, Solozabal'dar Ilare Abadiño'ko irakexleme ona ta Untzuetar Bonipage emakume ona.

**Etofi.**

Efoma'tik etofi zan Kapanaga'tar Bitoren Augustin'dar lekaidia, emeko «Markue» basetzeko semia. Ondo etofija.

**«Komerentziazko» goa.**

Beñola, «Zeleta»ko Pedro Jose, bere idi pareja bafijaz solora goxian-goiz juan zan. Ori ikusita, auzoko lagun batek jakin-gura andiz itandu eutzon.

—Zu, Pedro Jose, idi-parejiau zenbat ordaindu dozu?

—Eta Pedro Jose'k ben (serijo) erantzun eutzon.

—Lastue ederto jaten dabe.

—Ofatik sei bat mila efiel ordaindu biarko zenduzan... Idi edefak be badira-ta.

—Alkar atuek be bayatzuz. Ezkefa eskumiaz, ta eskumio ezkefaz bustefijan ba alako ederto konponetzen yatzuz ta.

Erantzueru onekaz, gixon itaunlarija, bere jakin-gurea asetu barik, emen esaten dan lez, «penaz beterik» ixildu biar izan zan; beñolako esakuniagaz ondo gomutaurik. «Naizko gofari, itaun bat eta bera naiko».

MAÑARIKO

**Abade barijari.**

Kañizal'dar Mikel jauna etofi yaku Ermu'ra abade. Bere agufari erantzutia nai neuke. Agur, ba, Mikel jauna. Ondo etofija. Aleginduko gara zeure erakutsi edefak gordetzen. Bedakigu, Jainko-zaletasunez beterik, umiak, gastiak eta zafak bide onian jarten asko alegintzen zarana. Ba da premiña bal... Agur ba, Mikel jauna; ondo etofija ta urte eskotarako.

**Erijotzak.**

Igaro zan estian il yakuzan Ziar-solo'tar Iñake ta Olañeta'tar Patx'ko. Goyan begoz. Jaungoikuaren aufera juan diranen guraso, anai-afeba ta beste senide guztieri euren naigabean laguntzen deutsegu.

**Gexorik.**

Bulafekugaz daukagu Gofotxategi'tar Jone. Eibar'ko gaxotegira eruango ete daben entzun dot. Osasun ona Jaungoikuak emongo ba' leutso, beste edozer baño nayago genduke ba... Atzo etofi zan Bilbao'tik Olañeta'tar Iñaki'ren emazia Itzagife'tar Agurne. Dakizuen lez osatebakuntza egin eutsen Bilbao'n. Ondo urten ei dau. Asko poztuten gara guztijok. Ia bizkor-bizkor osatzen dan betiko.

**Eleiz-deyak.**

Igaro dan igandean Izan dira Itzagife'tar Bitor eta Agifegomezkorta'tar Pilomena'ren irugafen eeyak. Zorrijonak oin, eta bizi guztirako zorijontasuna opa dautsegu.

**Pe'otarajak.**

Bilbao'ko pelota-tokija itxi ei deutse-ta, Ermua-alderuntz atofi dira pelotari-mordoxka bat.

M... 'k

**Eunak eta sofeko egifnak Zea'ra'tar Erupin Tenderia 15 Bilbao**

**Bakio.**

**Eleizkixunak.**

Biotz Deunaren bederatzi-ufena egin da gure txadonan. Agurtza eta enparau otoyak, Gure Jauna agirian dala, egin dira. Eta azkenengo iru egunetan Afue Aba Pantzeskafak euzkeraz txonitz edefak egin ditu. Eleiskixunak igaz baño goixago izan diralako edo lur-lanetan iradu dabilako, igaz kaño lagun gitxiago elelara ibili dalata gagoz, batez be gixonetan.

Gixonak, otzitu edo egiñ ete da zubetan eleiz-gauzetarako zaletazuna? Espagendukez alako eleizkixun edefak, esan, eta esan, egongo giñakez urlija efijetan au, ori eta bestia daukiela, eta geurian ezer ez; baño neure ustez ez geuria lako efi koskor baten, andijagua ixanda be, bat baño geyago egongo dira, gurlan egiten diran lako eleizkixun edefak euki ez dabezanak.

Igandian jaupa nagosija Bilbao'ko abelarijak abestuta, alako jaupa edefa euki gendun.

Gorpusti-egunian ibilgunde deuna Gure Jaunagaz egin gendun. Efi gustia Jauna Osti Deunian gurtuten an izan zan.

**Donienak.**

Urte gustietan lez, aurtin be Gas. telugatz'era lagun asko etofi da, asko oñez eta asko baita bilbeletan, Deun Jon'eri onoi'men andijaz euren esturen baten opalduriko eskintza egiten.

**Udaldija.**

Gure artian udaldija igarotera etofita emen dagoz Enderika, Ganboa, Abando, Zubizafeta, Uriarte, Afutza, Gara'ren alarguna, P'co Kandina eta abar eta abar sendijak. Udaldi gozotsu bat opa dautsegu gustioi.

**Jayotza.**

San Juan'dar Jon eta Etxebafleta'tar Iruene'k lenengo semetxua izan dabe, eta ugutzaldian Jon Efamundo izenak ipiñi dautsoez. Ugalde'tar Jon eta Ormatza'tar Miren'ek alabatxu bafi bat izan dabe eta Izlar izenagaz ugutzau. Zorrijonak.

**Bañu-etxe baria.**

Gara'tar Edorta'k bañu-etxia egin dau. Biar-bisfekua izan da gure efitxuan etxe ori. Itxes-ureko bañu beruak emongo dabez. Ederto egin da eta apainduta dago, eta ixena egoki-egokija, «Afi Mune». Etxia egin da dagon arietza-elde areri beti ixen ori esaten izan dautsagu.

ZUBIONDO

**GORUNTZ - GAYAK**

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugar-gaitzak  
**Zubiri'tar Bingen**  
Artekaie, 50 BILBAO

**Akorda.**

Aspaldijon ugari doguz jayak. Gaur-arte Jaunak eskefak oso ederto ospatu doguz orain artekuak.

«Gorpuzti» eguna edertxua izan dogu, ibildeuna, etxurea dalez gorengetarikua, elezapen egin zan; baño geure zerutar egikarak aztu gabe auferantz bardin eruateko adorea sendotubaz. Geure auzo efi Iba-fangelua'ko «piestarik» goralgafijek euzko usaindun pelotakiak izan doguz. ¿Zelan ez euzko-kirolak ba-dira gauza gustijen antzian garbijak? Ederto buaz aufera geure nayen doguzan egikerak.

Geure efiko guestetxua emon eutsen egunari beria Jon Deuna'ren aufe-eguneko ilun nabafian, sapuak, eltxubak, eta sorgin ta sofijak efeteko «su» edefak enparantza erdijan eginda. Aren poza, «su» aren indafa Akorda'k inpernu dirudijan, «txinpartak» etarate ebazan, garbitasuna guran. ¿Euzko-kirolak garbijak dirala? ¡Baita euzko-oitura zafak be!

Jon Deuna; Laga'ko ariatzen itxaso aixe biguna. Uda aldijan osasunaren bila bertara asko juaten ba-dira, Jon Deunez ondartzatza aretako jaya dala-ta, egunari beria emotiagafik Akordar asko bertaratu ziran. Ofaitiño ez gero «San Juan» lorak, goxeko jaupa nagusijan onetsi barik.

Aste onetako izparfik urtenena Gazteiz'ko eleistar nagusijak emon dauskubena-da. Datofen ilaren bedatzi-jan astartez Mateo Muxika Gotzain jauna yatorkula Akorda'ra afa-

**BANCO DE VIZCAYA GRAN VIA, 1 - BILBAO'N**

Legezko dirutza: 100.000.000 lauerleko. Ipiñiriko dirutza 60.000.000 Gerorako dirutza berezia 50.000.000. Diru-eixe onek Banka, Bolsa ta Kanbijo'ko edozein artu-emon egiten dau,

**EMOTEN DAUN IRABASIA (ERREITUA)**

**Noz-gurako affu-emonetan (Cuentas Corrientes)**

Eskatuta bertatikoa.....euneko 1 1/2

Berarizkoan, orbeko diru ipintietan emoten dana

**Diru-iplintietan**

imiñija iru ilabetian ez atarateko, euneko 3

» sei-ilabetian ez atarateko » 3,60

imiñija urtebetian ez atarateko euneko.. 4

Aufexki-kutxan (Caja de ahorros) » 3,50

**Aranzibia'tar Lorenzo jaunak**

ZALDIBAÑ'KO BERE MINTEGIJETAN

**LANDARA MUETA EDERAK: SALGEI DAUKOZ**

Inr (pluo) onda ozenetalkua, akazia, aretz lapondar, onkallipus sagar ta mandar.